

Asisko gutuna

2015ko Urtarrila.

3. printzipioa.

Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

75. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Urte berriaren hasieran elkar zoriondu eta elkarri onena opa diogu. Egia da baita, jaien ostean halako biharamuna geratzen zaigula hainbat erosketa opari eta kasurekin. Atseginez? Geure desioak aserik? Edo agian hutsal? Gerta liteke bilatzen duguna, barnean desio duguna, dendetan ez saltzea, eta beste nonbait bilatu beharra. Hori horrela bada, Jainkoaren begiradak bere desioz bete gaitzala hasi dugun urte berri honetan.

Gogoetarako gaia

Zer falta zait?

Oparotasunean bizi den gizartea da gurea. Gaienetik begiratuta ez zaigu ezer falta; horrela da, gutako gehienek beteak dituzte funtsezko premiak: jatekoa, arropa, heziketa, estimatzen eta maitatzen gaituzten pertsonak ... Guzti hori horrela, zergatik dirudi hain zoritzarreko garela eta zergatik goaz hain triste bizitzan zehar?

Ase ezinak gara. Zenbat eta gehiago dugun gehiago nahi dugu, eta pentsatzen dugu horrek emango digula zoriona. Baina zenbat eta gehiago kezkatzen garen geure gabezia eta eskasiez, hainbat eta urrutiago dugula dirudi zoriona eta ongizatea. Gauza bat ahazten dugu: eskura dugun guztiak gero eta gehiago garamatzala geure baitara begiratzera; eta horrela ezin dugula honako aurkikuntza hau egin: hain zuzen, nire eskasia eta ustezko gabeziei begiratu ordezi ni baino premia gehiagokoei begiratu banie, ez nintzatekeela halako asebetez biziko eta askoz zorionsuago izango nintzatekeela.

Hezi egin behar dugu desiratzeko ahalmena, betetzen eta asetzen gaituenaren bila ibiltzera eraman gaitzan. Eta herri-esaerak dioen bezala, “bizitzako gauzarik inportanteenak ez dira, hain zuzen, gauzak”. Geure desirak hezteak eramango gaitu argi ikustera, zerk ematen digun bizitzeko arrazoia eta zerk uzten gaituen hutsik; zerk liberatzen gaituen eta zerk lotuak bizitzera eramaten; zerk ateratzen duen geure baitako alderik onena eta zerk gaituen sarean harrapatzen.

Geure desirak hezteak eramango gaitu, halaber, erdipurdi-moduan bizitzearekin ez konformatzera, eta grinaz, ilusioz eta itxaropenez bizitzera.

Nolako arretaz eman zion Jesusek gure desirak eta joranak hezteari. Konturatzen baitzen nola galtzen ditugun geure denbora eta indarrak bost xentimoko gauzetan, eta nola dugun ahanzten handienerako eginak gaudela: Jainkoarentzat eta ez gutxiagorako.

Ebanjelioko pasartea: Mt 19, 16-22

Behin batez, gazte batek Jesusengana hurbildu eta esan zion: “Maisu, zer onik egin behar dut, betiko bizia eskuratzeko?”. Jesusek erantzun zion: “Zergatik galdetzen didazu onari buruz? Jainkoa bakarrik da ona. Betiko bizian sartu nahi baduzu, gorde aginduak”. Hark galdetu zion: “Zein agindu?” Eta Jesusek: “Ez hil inor, ez egin aduleriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ohoratu aita-amak, eta maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Gazteak, orduan: “Hori guztia bete dut; zer falta dut oraindik?”. Jesusek erantzun zion: “Guztiz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri”. Hitz hauek entzutean, atsekabez alde egin zuen gazteak, ondasun handien jabe baitzen.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Jainko ahalguztidun, betiko, zuzen eta errukitsua, zeu zarena zarelako emaguzu guri, errukarrioi, zuk nahi duzula dakiguna egitea, eta zuri atsegin zaizuna beti nahi izatea, horrela, barne garbiturik, barne argiturik eta Espiritu Santuaren suaz pizturik, zure Seme maite Jesu Kristo gure Jaunaren oinatzei jarrai ahal diezaiegun, eta, zure grazia hutsez, irits ahal gaitezen zuregana, Goi-goiko horregana; zu Hirutasun osoan eta Batasun sinplean bizi zara, errege eta aintzatsu, Jainko ahalguztidun hori, gizaldi eta gizaldi guztietan. Amen”.

Frantziskok otoitzean eskatzen du Jainkoak nahi eta atsegin duena nahi izatea. Zeren eta Jainkoak beti bizirako gogoak, bihotzez eta ontasunez beteak, amesten baititu. Jainkoak zoriona damaion hura desiratzen du: seme-alabei maitetsuki begiratu eta haientzat on dena bilatzea. Ezerk ez du desira maitasunak adina sendatzen eta bideratzen. Jainkoak maitatuz desiratzen du: gu maitatzea du bere desira.

Frantziskok Jainkoari atsegin zaiona desiratzen du. Zeren eta Jainkoak bezala desiratzea eta Jainkoak desiratzen duena desiratzea, haren grazia baita: berekin dakar haren Espirituak gu puru egitea eta geure zentrotik ateratzea, haren Espirituak gu argitzea eta gure begirada garbitzea, Espirituak gu bere suan eta maitasunean sutzea. Horrela jarraitu ahalko ditugu Jesu Kristoren urratsak, hori dugularik beharrezko dugun gauza bakarra.

Otoitza

Nahi dut izan: xaloa zu zaren bezala,
arima garden egunaren gisa,
ahotsa faltsurik gabe, eta begirada
itsasoa bezain sakona, baina barea.

Nahi dut: ez inor zauritu, baina bai zure zeinuez
galdetzeraz datorkidan gizaki oro kezkatu.
Maitatu, maitatu, maitatu, emana bizi
doan, egunez egun, ordainik bilatu gabe.

Nahi dut: zubi izan eta ez helmuga, bide izan
ibili eta ahazten den bide, leiho izan
zure begien sororantz eta zu maitatu.

Atsedean nahi dut izan, Jainkoaren baso-ardoa
gizakientzat, datozenean,
baso hautsez estalia zure bila ibil izanaz.

Valentín Arteaga

Gutuneko azken hitzak

“Egiazko maitasun oro gupidatsua da, eta gupida ez den maitasun oro norberekoa da.” (A Schopenhauer)

2015ko urtarrileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate urtarrileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 2, 16-21	8 Mk 6,34-44	15 Mk 1, 40-45	22 Mk 3, 7-12	29 Mk 4, 21-25
2 Jn 1, 19-28	9 Mk 6, 45-52	16 Mk 2, 1-12	23 Mk 3, 13-19	30 Mk 4, 26-34
3.Jn 1, 29-34	10 Lk 4, 14-22a	17 Mk 2, 13-17	24 Mk 3, 20-21	31 Mk 4, 35-41
4 Jn 1, 1-18	11 Mk 1,7-11	18 Jn 1, 35-42	25 Mk 1, 14-20	
5 Jn 1, 43-51	12 Mk 1, 14-20	19 Mk 2, 18-22	26 Mk 3, 22-30	
6 Mt 2,1-12	13 Mk 1, 21-28	20 Mk 2, 23-28	27 Mk 3, 31-35	
7 Mt 4,12-17.23-25	14 Mk 1, 29-39	21 Mk 3, 1-6	28 Mk 4, 1-20	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org




Asis Sarea

646 21 48 96